ARGIBIDE-ESKAEREN ERANTZUNAK

- 3. atala – Onartzeko baldintzak: Sozietate kudeatzaile bera aurkez daiteke FEIren hainbat programatara interes-gatazkarik sortu gabe?

  Erantzuna: Bai. Sozietate kudeatzaile edo talde kudeatzaile berak hautagaitzak aurkez ditzake FEIren hainbat programatarako, baldin eta eskaera bakoitzak:

  - funts, ibilgailu edo estrategia bereiziei buruzkoa bada,
  - modu independentean aurkezten bada, programa bakoitzean aplikatu beharreko oinarrien arabera,
  - gardentasuna, trazabilitatea eta inbertsioen bereizketa egokia bermatzen bada.

  Hainbat programatan parte hartzea ez da, berez, interes-gatazka bat. Hala ere, Ebaluazio eta Kualifikazio Fasean, aurkeztutako proposamen guztien koherentzia, sozietate kudeatzailearen gaitasun operatiboa eta gainjartze posibleen kudeaketa egokia aztertuko dira, eta arreta berezia jarriko da eragiketa beraren finantzaketa publiko bikoitza saihesteko eta baliabide publikoen efektu biderkatzailea maximizatzeko helburua zaintzeko.

- 3.1.1. atala – Bat-etortze estrategikoa:

  Venture kapitaleko edo transferentzia teknologikoko estrategiak lehentasunezkotzat hartzen dira Programaren barruan?

  Erantzuna: Bai. Programak ez ditu alde batera uzten venture kapitaleko estrategiak, ezta transferentzia teknologikokoak ere, baldin eta inbertsio-tesia eskalagarritasunera, hazkundera eta enpresa-finkapenera bideratuta badago. Positiboki balioetsiko da estrategia horiek proiektuak sortzen edo eraldatzen laguntzea, Euskadin errotuta dauden enpresa handiagoetan.

  Kapitalean inbertitzen duen baina kuasi-kapitaleko tresnak (adibidez, bihurgarriak, mezzanine) erabiltzen dituen funts bat onargarria al da Eskalagarritasunean Inbertitzeko Programan?

  Erantzuna: Eskalagarritasunean Inbertitzeko Programa enpresa-hazkundera eta -eraldaketara bideratutako kapitaleko inbertsio-funtsei zuzenduta dago. Esparru horretan, onargarriak dira nagusiki kapital-estrategia duten funtsak, nahiz eta osagarri gisa kuasi-kapitaleko tresnak edo tresna hibridoak izan (adibidez, bihurgarriak, mezanine edo antzekoak), betiere tresna horiek hazkunde-logikarekin lerrokatuta badaude eta enpresa partaidetuen

finantza-egitura indartzen badute. Egokitzapenaren azterketa orokorra egingo da, estrategiaren eta programaren helburuen arteko koherentzia kontuan hartuta.

- 3.1.2. atala – Gutxieneko ondare helburua: Inbertsio-proposamenak bi bitarteko paralelo baditu (adibidez, AKF bat eta AKS bat), kontuan hartuko litzateke bien tamaina helburua atalasera iristeko?

  Erantzuna: Oinarrien 3.1.2 atalean aurreikusitako gutxieneko ondare helburuaren betekizuna betetzen dela egiaztatzeko, inbertsio-proposamena osatzen duten bitarteko paraleloen tamaina helburua hartuko da kontuan, baldin eta argi eta garbi islatzen bada ibilgailu horiek erakunde eskatzaile berekoak direla, kudeaketa-talde berak kudeatzen dituela, inbertsio-estrategia bakarra osatzen dutela eta enpresa berberetan pari passu baldintzetan inbertitzen dutela.

  Era berean, (i) hirugarrenen konpromisoei dagokienez, tamaina helburuaren % 20 gutxienez, eta (ii) kudeaketa-taldearen konprometitutako gutxieneko ekarpenari dagokionez, guztizko tamainaren % 2, inbertsio-proposamena osatzen duten bitarteko paralelo guztien baterako tamaina helburua ere kontuan hartuko da, aurreko paragrafoan azaldu den bezala.

  Hori esanda, % 49ko partaidetza publikoaren muga betetzen dela egiaztatzeko, hau banaka bete beharko da INDARTUZek azken inbertsioa egiten duen bitartekoan edo bitartekoetan.

- 3.1.2. atala – Hirugarrenen gutxieneko konpromisoak (% 20):

  Aurkezteko beharrezkoa den funtsaren % 20ko helburutik, beharrezkoa al da gehieneko % 49ko inbertsio publikoko muga betetzea, edo muga hori zenbatzen hasten al da FEIk funtsarekin konpromisoak dituenerako?

  Erantzuna: Ez, onarpenari dagokionez ez da beharrezkoa % 49 publikoaren ratioa betetzea helburuaren % 20ko gutxieneko konpromisoetarako. Esleipenaren kasuan, % 49ko muga etengo da, INDARTUZen benetako konpromisoa formalizatu ahal izateko.

- 3.1.2. atala – Norberaren ekarpena:

  % 2ko ekarpena kudeaketa-taldeak bakarrik egin behar du?

  Erantzuna: Programak kapital horren jatorrian malgutasuna ahalbidetzen du, betiere funtsak ibilgailua kudeatzen duen Erakunde Eskatzailearengandik edo

inbertsio-erabakiak hartzen dituzten profesionalengandik badatoz, bere konpromiso ekonomikoa funtsaren arrakastari lotuta dagoela ziurtatuz.

- 3.1.3. atala – Kudeaketa-taldeko kideen esperientzia: Zer hartzen da arrisku-kapitaleko entitateetan aldez aurreko esperientziatzat taldearen esperientzia egiaztatzeko?

  Erantzuna: Aldez aurreko esperientzia ez dago mugatuta arrisku-kapitaleko kudeatzaile tradizionaletara bakarrik.

  Baliozkotzat joko da honako hauetan lortutako esperientzia:

  - Funtsak eta private equity eta venture capital sozietateak.
  - Venture builder-ak, independenteak nahiz enpresekin lotutakoak, baldin eta esperientzia egiazta badezakete sustatzen dituzten konpainien sorreran, garapenean eta desinbertsio partzial edo osoan.
  - Corporate venture capital taldeak, inbertsio estrategikoan eta desinbertsio korporatiboko prozesuetan esperientzia dutenak.

- 3.1.4. atala - 6. atalean aurreikusitako kontratu-konpromisoak onartzea: Beharrezkoa al da dokumentu edo adierazpen espezifikoren bat aurkeztea atal hau betetzeko?

  Erantzuna: II. eranskinean azaltzen den bezala, eranskin hori sinatu eta aurkezteak esan nahi du erakunde eskatzaileak onartu eta konpromisoa hartzen duela 3.1 atalean zerrendatutako baldintza guztiak betetzeko, salbuespenik gabe, eta, beraz, ez dela beharrezkoa agiri edo adierazpen gehigarririk aurkeztea.

- 3.2. atala – Eratzea eta CNMVn erregistratzea: Programara aurkezteko, beharrezkoa al da CNMVn erregistratuta egotea?

  Erantzuna: Onarpen Fasean, ez. Eratzeko prozesuan dauden ibilgailuak aurkeztu ahal izango dira, eta CNMVri bidalitako dokumentazioa aurkeztu beharko da. INDARTUZen inbertsio-konpromisoa sinatu aurretik, ezinbesteko baldintzak izango dira formalki eratzea eta CNMVn behin betiko erregistratzea.

- 3.2.e) atala - Frogagiriak: Zer dokumentazio aurkeztu behar da funtsaren ondarea egiaztatzeko?

  Erantzuna: Funtsaren liburuxkak edo araudiak egungo ondarea edo funtsaren tamaina helburua jasotzen badu, nahikoa izango da dokumentu hori aurkeztea. Bestela, eskabidea aurkezten den momentuan funtseko inbertitzaile guztiek indarrean dituzten konpromiso irmoen edo interes-adierazpenen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Argitzeko, bigarren kasu horretan, oinarrien 4.2 atalean eskatzen den dokumentazio bera aurkeztu beharko da (Trakzio-ebidentziak).

- 4.1.3. atala – Gutxieneko BETa: Programak eskatutako gutxieneko TIR uniformerik ba al dago?

  Erantzuna: Ez dago atalase uniformerik. Helburuko errentagarritasunaren, inbertsio-estrategiaren, arrisku-profilaren eta funts konparagarrietarako merkatu-estandarren arteko koherentzia kontuan hartuta egingo da ebaluazioa. Errentagarritasun helburua lehiakorra eta proposatutako estrategiaren arrisku-itzulera binomioarekin koherentea izatea eskatuko da.

- 4.2. atala – IGG galde-sorta xehatua: Aurrez definitutako bete beharreko eredurik ba al dago edo aurkeztu beharreko formatua eta edukia librea da?

  Erantzuna: Ez dago eredu itxi edo formatu lehenetsirik 4.2 atalerako, eta, beraz, ikuspegia malgua da. Hala ere, galde-sortaren helburua da erakundeak bere politika eta IGG estrategia propioak deskribatzea, eta, bereziki, IGG irizpideak funtsean integratu, kontrolatu eta neurtzera nola eramaten den zehazki, ibilgailuaren sailkapenarekin bat etorriz (adibidez, 8/8 plus artikulua). SFDRren arabera eskuragarri dagoen IGG dokumentazioa erreferentzia edo material lagungarri gisa erabil daiteke, baina ez du ordezten galdetegiaren edukia, funtsaren planteamendu operatibo eta espezifikoa islatu behar baitu, araudia betetzeko dokumentazio estandarrera bidaltzetik harago.

- 5. atala – Onarpen-fasea: FEIren Kontseiluak zuzendu al dezake Trantsizio Sozialeko Programara Eskalagarritasunean Inbertitzeko Programan aurkeztutako hautagaitza bat?

  Erantzuna: Bai. Euskadi Eraldatuz 2030 Planaren gobernantza-ereduarekin bat etorriz, FEIren Kontseiluak beretzat gordetzen du aurkeztutako hautagaien egokitze estrategikoa baloratzeko gaitasuna, eta, hala badagokio, hasieran aurkeztu den programaz bestelakoetarako egokitzapena aztertzeko

ahalmena. Balorazio hori azterketa- eta erabaki-prozesu arrunten barruan egiten da, hautagaiei automatikoki kalterik eragin gabe eta onartzeko konpromisorik eragin gabe.

- 5.b. atala – Due diligence txosten gehigarriak: Due diligence txosten gehigarriak hirugarren batek egin behar ditu? Nork ordaintzen ditu?

  Erantzuna: FEIk beregain azterketa estrategikoa eta negoziokoa egiten du. Beharrezkotzat joz gero, kanpoko aholkularitza espezializatua kontratatu ahal izango du, eta horren kostu osoa bere gain hartuko du.

- 6.1. atala – Ordezkaritza gainbegiratze-organoan: INDARTUZek hitza eta botoa duen ordezkari bat eta behatzaile bat izendatzeko eskubidea du, partaidetza-ehunekoa edozein dela ere?

  Erantzuna: FEIk presentzia-eskubidea gordetzen du, azken partaidetzaren ehunekoa edozein dela ere, inbertitzaile instituzional estrategikoa delako eta programaren helburuak betetzen direla gainbegiratu behar duelako. Eskubide horren artikulazioa modu diskrezionalean eta *ad hoc* definituko da sozietate kudeatzailearekin, eta ordezkaritza zuzenaren bidez edo beste inbertitzaile instituzional batzuekin elkartuta gauzatu ahal izango da, zehazten denaren arabera, behin betiko konpromisoaren eta Funtsaren gobernantza-egitura kontuan hartuz.

- 6.1. atala – Partaidetza publikoaren muga: Kapital pribatutzat jotzen al dira Europako Inbertsio Funtsa (EIF), Estatuko Garapen Teknologiko eta Berrikuntzarako Zentroa (CDTI) edo Espainiako Eraldaketa Teknologikorako Elkartea (SETT) bezalako erakundeen konpromisoak?

  Erantzuna: Ez. Erakunde horietatik datozen konpromisoak kapital publikotzat hartzen dira oinarri hauen ondorioetarako. Ondorioz, INDARTUZek eta beste inbertitzaile publiko batzuek batera duten partaidetzak ezin izango du inoiz Funtsaren ondarearen % 49 gainditu.

- 6.1. atala - Koinbertsiorako eskubidea:

  Eragiketa jakin batean koinbertsiorako eskubidea ez eskaintzeak oinarriak ez betetzea dakar?

  Erantzuna: Ebaluazio eta Kualifikazio Fasean, erakunde eskatzaileak euskal intereseko enpresetan batera inbertitzeko proposamena baloratuko da, EAEn traktore edo estrategikotzat jotzen diren konpainiak deserrotzeko arriskua arintzera bideratutako elementu gisa, arrisku-kapitaleko inbertsioen aldi baterako izaera kontuan hartuta, eta proposamen horretan, orientabide gisa, eskubide hori egituratzeko aurreikusitako printzipio orokorrak, irizpideak eta mekanismoak deskribatu beharko dira.

  Aurreikusten al da Sozietate Kudeatzaileak management fee-ak kobratzeko aukera, Eusko Jaurlaritzak koinbertsio-aukera batean sartzen duen tiketaren zatiagatik?

  Erantzuna: Indartuzek Funtsean edo koinbertsioen bidez egiten dituen inbertsioak inbertitzaile pribatuekin pari-passu baldintzetan egin beharko dira, hau da, baldintza instrumental, ekonomiko-finantzario eta legal berberekin; une berean egin beharko dira; inbertitzaileen abiapuntuko posizioa konparagarria izan beharko da, eta pribatuen inbertsioa ezingo da sinbolikoa edo marjinala izan.

- 6.1. atala – Inbertsio publikoak Funtsean: FEI eta/edo Eusko Jaurlaritzako enpresa-sektore publikoko beste erakunde batzuk, FEIk izendatuak, pari-passu sartuko lirateke baldintzei dagokienez, baina baita tamainari dgokienez? Hau da, funtsarekin egindako 1:1 koinbertsioa izango litzateke?

  Erantzuna: FEIk edo Eusko Jaurlaritzako beste edozein erakundek pari-passu inbertituko luke une berean eragiketan parte hartzen duen beste inbertitzaile pribatu batek egiten duen baldintza instrumental, ekonomiko eta juridikoetan (bai Sozietate Kudeatzailea bera, eta baita eragiketan une berean sartzen den beste hirugarren inbertitzaile bat ere), inbertitzaile pribatu horrekiko 1:1 inbertsio-tiketari dagokion gehieneko mugarekin.